

**MARKINA IZAN DA EUSKAL EMAKUME IDAZLEEN
BIGARREN BILERAREN TOPAGUNE**

1999ko Irailaren bigarren asteburuan, hilaren 11 eta 12an, Euskal Emakume Idazleen II. Bilerak Markinan izan zuen topagune, Karmeldarren etxean zehatzago esateko.

Lehenengo topagunea Arizkunen izan zen (Nafarroan), bigarrena Markinan (Bizkaian) eta hirugarrena Ipar Euskal Herrian egiteko asmoa dago, oraindik leku zehatza erabakitzeke dagoen arren.

Lehenengo bilera elkarrekin harremanetan jartzeko eta emakumetasunaren eta literaturaren inguruko kezka mahairatzeko izan bazen ere, bigarrenak, lehenengo bileran proposatutako lanek aurrera dagitela konturatzeko eta arestian iritziriko egitasmoei baietz irmoa emateko balio izan du.

Asteburuko bilera larunbat arratsaldean hasi zen, gai ordena luze bati erantzun gogoz. Arrats osoa eta gau partea hortan ari-tu ondoren, igande goizerako utzi zen Markina inguruak arakatze proposamena. Eta igande arratsalde, bazkari legea egin ondoren, elkarren ipuinak ahots gorean irakurri eta gozatzeko parada izan genuen hara bildutako, ekimen honekin gure bigarren bilerari azkena emanaz.

Orohar, Karmeldarren etxea leku gozo eta egoki egin zitzai-gun lanerako eta elkar ezagutzeko.

Errotuz doan lantaldearen helburuak eta jarduera finkatuz

II. Bileraren ardatz nagusiak bi izan ziren nagusiki: bileraren helburuak finkatzea batetik, eta lantaldearen jarduera zehaztea bestetik.

1. EUSKAL EMAKUME IDAZLEEN BILERAREN HELBURUAK FINKATZEA

Puntu honetan tratatzen lehena aldizkotasuna izan zen: hau da, zenbatero antolatu beharko ote litzatekeen zehaztea Euskal Emakume Idazleen arteko bilera. Eta hartzen den erabakia, sei hilabeterokoa izatea.

Hurrengo bilera antolatzeko arduraduna izendatu zen ondotik: antolatzaile hau Itxaro Borda izango delarik. Eta datari dagokionez, 2000. urteko Otsailaren lehenengo asteburua izatea hitzartu zen.

Hurrengo planteiatutako galdera edo kezka zera izan zen: nola deitu behar ote genuen bilera haietan lantzen genuena, zer nolako status-a edo gorputza eman lantaldeari, EIE (Euskal Idazleen Elkarte)-ren barruko lantalde bat ote zen edo ez...

Galdera edo kezka honi erantzun gogoz, bilerek jaso beharko luketen izena edo eta bilerara hurbiltzen gaituztenon identifikazio seinalea, **Euskal Emakume Idazleen Lantaldea** dela eta lantalde zabala garela esatea litzateke; delako lantalde hau, EIE-ko bazkideek zein bazkide ez direnek osa dezaketelarik.

Hurren erantzun beharko genuenak, II. Bileraren asmoa markatuko zuen: zein da Euskal Emakume Idazleen Lantaldearen helburua? Galdera honi erantzunez, lantaldearen helburua zehaztea eta finkatzea izan genuen xede. Hona hemen hitzartutako helburuak:

- Emakume Idazleen lana jakin eta ezagutaraztea (kanpora begirako helburua litzateke honako hau)
- Elkar eta elkarren lana ezagutzea (honako hau, ordea, barrura edo lantaldeari begirakoa)

2. EUSKAL EMAKUME IDAZLEEN LANTALDEAREN JARDUERA ZEHAZTEA

Emakume idazleen lana ezagutarazteko, eta hurrengo bileretan landu beharreko gaiei begira, honako ideia hauek proposatu ziren:

1. Gai baten inguruan **ipuin bilduma bat prestatu eta argitaratzea**: proposamen hau I. Bileran onartu zen eta dagoeneko hamabi lan bildu direlarik, 2.000. urteari begira honako hau erabaki zen: 1999ko Azaroaren 30ean falta diren guztien lanak biltzea eta datorren urteko abenduan Durangoko azokarako bilduma prestatzea.
2. Gai jakin bati buruzko **iritzi artikulua bildu eta argitaratu**: proposamen hau onartua izan zen, III. Bileran tratatzeko utzia.
3. Zenbait estatutan (frantsesean adibidez) ezagutzen den bezala, "Emakume Idazleen Sari Nazionala"-ren antzeko zerbait antolatzearen interes eta abantailak ikertzea. Ideia honen ingurukoak ere, III. Bileran lantzeko gelditu ziren.
4. Emakume idazleen lanak gizarteratzeko/merkaturatzeko, bai idazleak eta bai idazleen lana ezagutaraziko dituzten **erakusketa ibiltariak antolatzea**.
5. **Datu-base erabilgarri bat egituratzea**, zeinetan honako informazio hau jasoko litzatekeen: idazle bakoitzaren datu pertsonalak, argitalpenak, mahai inguruak, aurkezpenak, elkarrizketak, artikulua, emanaldiak, ikastaroak,... hau da, ekimen literarioa deskribatzeko balioko lukeen fitxategia prestatzea.

6. Egindako edo **argitaratutako lanari buruzko kritika egiteari** oso garrantzitsua iritzi zitzaion; baita kritika horren berri egileari helaraztea ere. Premia horri erantzun asmoz beraz, sistematikoki, emakume idazleen artetik sortzen edo eta argitaratzen den lan bakoitzak, lantaldeko norbaiten kritika jaso beharko lukeela ondorioztatu zen; kritika horren berri idazleari jakitera emanez eta medio ezberdinetan argitaratuz. Horrela, idazleak gutxieneko feedback-a lortzen duelarik eta delako kritika horri esker, lanaren promozio kanpaina laguntzen.

Ana Urkiza